



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2008-11-30**

VIURTEA 1.573.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Errusiara begira dagoen leihoa irekiz ekin diote 26. Txotxongilo jaialdiari

TOLOSA Atzo inauguratu zuten Titirijai; bi erakusketa izango dira ikusgai Leidor aretoan eta Aranburu Jauregian

EGITARAU Gaur bost saio izango dira ikusgai, haur nahiz helduentzat; besteak beste, Errusiako bi talde ariko dira s



Aranburun Errusiar txotxongiloari omenaldia egingo diote. Inaugurazioan Maria Jesus Aranburu zinta moztzen. E. EZBIZA



Udaberri dantza taldekoek emanaldia eskaini zuten atzo. N. URBIZU

Euskal giroa herrian zabalduz ospatu dute Euskararen Eguna

TOLOSA Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, dantzariak, taloak, bertsolariak,... izan ziren atzo > 6

Errondosoro eta Arozena, II. Argazki Rallyaren irabazleak

ASTEASU Guztira hamabi lagunek hartu zuten parte; bi arlotan banaturik eman ziren sariak > 4

27 gaztetxok hartu dute parte Mendi Asteko Eskalada Txapelketan

ASTEASU Sagain mendi elkarteak mendi ibilaldia antolatu du gaurko > 7

Neguko lehen barazkia, gardua, larunbateko azokan

TOLOSA Fruta zerrenda ere zabala izan zen; eguzkiak asko lagundu zuen salmentetan > 7

Krisia (z hitz egitea) saihesteko hamaika modu



» **Uzturretik**

Iraitz Lizarraga

Gaizki hasi naiz...nire promesa apurtu dut tituluan bertan: krisiaz ez hitz egitea agindu nion neure buruari. Edozer gauza izan-go dut mintzagai igande honetako zutabea, baina krisia ez! Baina atzetik segidan datorkidan muns-

tro moduko bat da, belarri atzean xirika ari zaidan mandeuli bat... krisia... krisia... krisia... Ez dugu besterik entzuten azkenaldi honetan: telebistan, egunkarietan, tabernetan, supermerkatuan... igogailuetan jada ez da eguraldiaz hitz egiten!! Pixkanaka beste fase batean sartzen ari gara ordea; krisiaz hitz egiteaz nazkatuta gaudela esaten hasiak gara honez gero... baina honekin ez dugu sustraiko arazoa konpontzen, krisi hitz madarikatua hor jarraitzen baitu, presente dago!! Oraingo honetan pasatzen ari dira!! Jada krisi hitza txisteak egiteko erabiltzen da eta are okerrago dena: publizitatea egiteko!! «Krisiari aurre egiteko menua, kri-

siaren kontrako altzariak...» Eta modu honetako hainbat astakeria entzun ditut azken egun hauetan. Noski... egoera dena dela ere ezin izango diogu ba erosteari utzi!!!! Ene... eta Gabonak atejoka... Ez dut pentsatu ere egin nahi datorkigun zaparradan!

Baditugu arrazoiak krisiaz hitz egin nahi ez izateko: Hasteko; inork ez dakielako oso ondo benetan zer gertatzen den; guztiok bihurtzen gara politikari, ekonomilaria eta bankari aditu gure iritzia emateko garaian baina bene benetan ba al dakigu zer gertatzen den? Interesak, tipoak, euriborrrak, ezta kitze indizeak, ibexa... gehientzuenontzako txinera!! Baina badi-

tugu hitz egiteko arrazoiak ere; batez ere kaleratuak izateko zorian dauden milaka langileek, lan postu dezente bat topatzen ez duten gazteek, hilabete amaierara iristeko malabareak egin behar dituzten familiek, tokatu zaien etxea noiz eraikiko zain daudenak... nola ez hitz egin krisiaz?? Baina geure krisiaz: aspalditik jasaten dugun egoeraz alegia eta ez bankuek eta mundu mailako agintari handiek modan jarri duten krisi honetaz.

Hor doaz bada, krisiaz ez hitz egiteko hamaika modu edo gai: Eguraldia, futbola, kotilleoak, telebistako programak... (klasikoak); badira proposamen konstruktiboak: herrian egin daitezkeen ho-

bekuntzei buruz hitz egitea, inoiz beteko ez ditugun planak egitea... Edo solasaldi kulturalak: antzerki obrak, pelikulak, liburuak komentatzea. Mundua konpontzen saileko solasaldiek luzerako jotzen dute eta normalean ongientiarazten gaituzte hitz potoloak erabiltzeko aukera ematen baitute. Eta nola ez: edonor eta edozerren kontrako deskarga-solasaldi edo hobe esanda deskarga-monologoak, gure barrena hustu eta lasaitzeko.

Gure osasuna zaindu eta gabonetako bazkari-afarien digestioak ez izorratzeko, hobe genuke gai hauen inguruko solasaldiak bultzatu eta krisiaren ingurukoak saihestea. Krisia krisi zihur aurten-go gabonetan ere geure mahaian bizilagunenean baino langostino gehiago egon daitezten saiatuko gara!

A Asteko irudia



Genero indarkeriaren aurkako oihuak

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Pasa den asteartean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatu zen. Aldarrikapenerako eguna izan ohi da, oraindik ere urtean ehunka eraiketa izaten baitira, milaka jipoi etabeste hainbeste malko. Eskualdeko herri askotan ere ozen esan zioten ezetz genero indarkeriari herritarrek. Villabonan, Ikaztegiatan,

Anoetan, Iruran, Tolosan... elkarretaratzeak, mahai-inguruak, gazteekin ekintzak... egin zituzten gizartea kontzientzia dadin eta,aldi berean, aurka azaltzeko. Irudietan, Miriam Herbonek eta Xabier Odriozolak eskainitako mahai-ingurua Tolosan eta Anoetan, Anoetako ikastolako DBHko ikasleek eginiko «tratu onen» murala. I.TERRADILLOS/A.JAUREGI

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

Durangoko Azoka

» Iritzia

Iratxe Etxebeste
Euskal Idazleen Elkarte zuzendaria

3 45 liburu berri izango dira aurtengo Durangoko Liburu eta Disko Azokan. Hala iragarri du Gerediaga Elkarteak, eta horien artean badira eskualdeko idazleak ere. Esate baterako, Juan Kruz Igerabideren *Amilami eta Munia ohe azpian lo* (Elkar); Karlos Linazasororen *Zein beste mundukoa* (Elkar) eta Joxean Ormazabalaren *Margolin* (Elkar) Haur eta Gazte Literaturan, eta *1936ko Gerrako Oroitzapenak Tolosaldea eta Leitzaldean*, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

honek eta *Galtzaundik* elkarlanean argitara emandakoa Espainiako Gerrak eskualdean utzitako arrastoari buruz.

Horiez gain, ordea, bada beste liburu bat aparteko interes sortu didana. Ez da lehendabiziko aldia HITZA egunkariak Durangoko Azokara liburu bat eramaten duena, ia *Ametsetako hitzak* aurkeztu zuelako Lea-Artibai eskualdeko idazle eta ilustratzaileek egindako lanekin.

Aurten eskainiko duen *Hitzalean* horrek, baina, badu zer bait berezia, beharbada, HITZA guztien artean egindakoa izateagatik. Edo idazle sonatuenekin batera, oraindik ere libururik argitaratu gabeko

idazleen narrazioak biltzen dituelako.

Hitzalean bildumako lehen liburua izango omen da, gainera, besteak beste, Arantxa Iturbe, Mikel Olano, Karlos Linazasoro, Joxemari Iturralde eta Juan Kruz Igerabideren narrazioak ekarriko dituen hori.

Baina irakurleak jakingo ahal du, eskaintza ikaragarri horren guztien artean, ahalegin hau preziatzen!

Irakurleentzat horixe baita Durangoko Azoka: nobedadeak nobedadeen gainetik, produktu andana, askotarikoa, etajendea, eta jende gehiago, eta trago bat Platean eta beste bat Alde Zaharreko edozein tabernatan, parrandara joan aurretik.

Durangoko Azoka gertutik ezagutzeko aukera izan dut azken ur-

teetan, eta niretzat Durango ez da hori. Durango da Landako erakustazokan eta Elkartegian atzerriko literaturen berri ematea, sortzaile gazteen lana erakustea, literatur adizkariak banatzea, eta beste hamaika kontu.

Eta, batez ere, Durango da idazleek Durangoko Azokari buruz duten kezka. Idazleek, eta, sortzaileek, oro har: sormenak orain arte zein leku izan duen, aurrerantz zein leku izan beharko lukeen, noren ardura den sortzaileek Durango duten parte-hartzea beste era batekoa izatea...

Bada kezka horiei irtenbidea bilatze aldera, lehen axioma edo lege moduko bat onartu dute hainbat lagunek: sortzaileen zeregina dela Azokan sormenak izan behar duen lekua proposatzea. Eta horren karrera, Ahotsenea sortzaileen gunea

sortu dute, Gerediaga Elkarteak, Euskal Idazleen Elkarteak eta Entzun aldizkariaren babesarekin eta Bizkaiko Foru Aldundia eta Ulma enpresaren laguntzarekin.

Diru kopuru handirik lortu ez, eta egitarau xumea prestatu dute lehen urte honetarako. Zehazki, «egitasmoa aurkeztera mugatuko» direla esan dute proiektuaren sustatzaileek. Abenduaren 6an, larunbatarekin, kazetarietako goseria, liburu eta diskoen aurkezpenak, sortzaileekin elkarrizketa, mahai-inguru eta hitzaldiak, Ahotsenea egitasmoaren aurkezpena eta musika emanaldi akustikoak izango dira, besteak beste, Elkartegian, 10:00etan abiatuta. www.ahotsenea.com webgunea ere orduan aurkeztuko dute.

Etorriko dira garai hobeak sortzaileentzat ere.

S Soka motzean

«Bere produktua ezagutzen ez duen saltzailea ez da ona»

RAUL BRICEÑO

Tamaina txikiko liburuen saltzailea

N. LATABURU - I. TERRADILLOS

Tamaina txikiko liburuez inguraturik baina jakinduria handiko gizona da Raul Briceño (Peru, 1954).

Zer motatako liburuak saltzen dituzu?

300 liburu baino gehiago ditut eta guztiak ondo irakurtzen dira, e? Benetan, begira, begira...

Liburu txikiak... jende txikiarentzat?

Hau kultura da, tamaina txikikoa, baina kultura.

Eta zuk, irakurtzen al dituzu?

Guztiak irakurri ditut (txisteak, atsoitzak, *Kama Sutra*, *El principito*). Bere produktua ezagutzen ez duen saltzailea ez da saltzaile ona.

Gero arraroa egingo zaizu tamaina errealeko liburuak irakurtzea...

Ez, ez. Eleberri asko irakurtzen ditut, eta hiztegi bat dut ere beti alboan.

Liburuaren Azoka urtero egitan da eta ez da Tolosa bisitatzeko duzun lehen aldia...

Ez, hamar aldiz-edo egon naiz hemen.

Zer moduzko jendea dago hemen?

Ona, egia esan. Ondo saltzen dut hemen, gehienbat esaldienak saltzen ditut.

Zerbait bitxia eskatu al dizute inoiz?

Askok *best seller* edo famatuak diren eleberriak eskatzen dizkidan.

Eta ez dituzu.

Copyright arazoengatik ezin ditugu edukitu. Guk bakarrik orokorrak direnak ditugu.



I. TERRADILLOS

G Gutunak

World Kafe-aren inguruko salaketa

«Gizartearen parte-hartzeak oinarriko bi abiapuntu behar ditu: baretetik, benetako bide eraginkorren bidez erabakitze-prozesu publikoak konpartitzeko prest dauden Erakundeak, eta baretetik, parte-hartze prest dauden herritarrek eta gizarte taldeak. Oinarri horietatik abiatuta, parte-hartzearen benetako zentzua ulertzea gizartearen parte-hartzea gatazka dela baitartatzea, eta gatazka hori erabakorrean bideratzeko borondatea behar dela barmatzea da. Baldintza hori gabe, ez geundeke parte-hartzearen eredu baten aurrean, ezpada heldugabetasun edo giza harremanetarako ezintasun eredu baten aurrean». (Baketik-ek antolatutako parte-hartzeari buruzko prestakuntza programaren argitalpenetik ateratutako testua).

Gaurko ekitaldia hau ez da parte-hartzaile, ereduak eskatzen dituen baldintzak betetzen ez dituelako:

- Ez da parte-hartzailea, helburua elkarrizketa eta hausnarketa baldin bada (gonbidatuei bidalitako gutunean adierazten den moduan), Parte-hartzeak erabakitze-prozesu publikoak exijitzen dituelako.

- Ez da parte-hartzailea, Erakundeak benetako bide eraginkorrek

konpartitzeko prest ez dauden bitartean (gizarte taldeei Udaltzatortzeetan parte-hartzea uzten ez zaizkela).

- Ez da parte-hartzailea, parte-hartze prest dauden herritar eta herritako gizarte taldeak kontutan hartzen ez badituzte.

- Ez da parte-hartzailea, parte-hartzea gatazka dela onartzen ez den bitartean eta gatazka ekiditearren kritikoak izan daitezkeen taldeak baztertzeko badira.

- Gaurko World kafe ekitaldi honetan, ez gaude parte-hartzea eredu baten aurrean, heldugabetasun edo giza harremanetarako ezintasun eredu baten aurrean baiziki.

- Modu honetako *itarakeri karpainak* badute gainera ondorio maltzur bat. Benetan ezinbestekoa den gestio sistemaren baliogabetzea darrak, duen zentzuaz hustutzen dituztela, etorkizun motzean antzeturik gelditzen direlarik.

Gonbidatuak izan ez eta kanpoan bildu garenok, benetako bide eraginkorren bidez erabakitze-prozesu publikoak konpartitzeko prest gauden herritarrek eta gizarte taldeak gara, horretarako prest dauden erakundeak exijitzen ditugu.

Zahartzero duinarean aldeko plataforma, AHT Elkarlana, Euskal Herria Sozialista, Bilgune Feminista, LAB, Sanblasipiko S.G.A.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Bidegorria eta herriko txokoen artean

Asteasu » II. Argazki Rallyan, Mirari Errondosoro eta Ainhoa Arozena izan ziren irabazleak.



IMANOL GARCIA

Asteasuko II. Argazki Rallyan hamabi parte-hartzaile izan ziren eta bi arlotan eman ziren sariak: digitalean eta analogikoan. Digitalean lehen saria Mirari Errondosoro eraman zuen. Bigarren saria Jokin Sukuntzak jaso zuen eta hirugarren saria Jon Beobiderentzat izan zen.

Analogikoari dagokionez, Ainhoa Arozenak lehenengo eta hirugarren sariak jaso zituen eta Peru Ortiz de Zaratek bigarren saria. Parte-hartzaile guztien argazkiak ikusgai daude Kultur Etxean. Gogoratu behar da rallyarentzako gaiak bidegorri berrira eta Asteasuko txoko eta bizitza izan zirela.

Bigarren aldiz parte hartzen zuen Mirari Errondosorok (Villabona jaio eta Ordizian bizi da) argazki rallyan. Orain hiru urte hasi zen argazkilaritzan murgiltzen, bi lagunek animatuta eta argazki rally-etan parte hartzen urte eta erdi darama. «Besteek zer motako argazkiak ateratzen dituzten ikusteko interesgarria dira argazki rallyak», dio Errondosorok, «eta goiza ondo pasatzeko modua da».



Asteasuko argazki rallyan jarritako gaiak ez zirela oso mugatuak izan azaltzen du. Lehen saria irabazi duen argazkia ateratzeko zain egon zela azaldu du: «Hor jarri nintzen zain baten bat etorriko zela eta orduan musika entzun nuen eta neska nire aurretik pasatzen zenean ateratu nuen argazkia».

Misterio gehiago

Ainhoa Arozena billabonatarrek lehenengo aldiz parte hartu zuen Asteasuko argazki rallyan. «Orain gutxi izan da Villabonako argazki rallya. Antolatzaileak ezagutzen nituen eta parte hartzea pentsatu nuen eta gero Asteasukoan ere parte hartzea erabaki nuen».


Kamera analogikoarekin aritu zen Arozena rallyan. Modu horretara argazkiak ateratzek «misterio gehiago, ezusteko gehiago» duela dio billabonatarrek. Saria jasotzea ez zuen espero eta «pozik» hartu du. Argazki rallyko egunetan eguraldiak asko lagundu zuela azaldu du eta Asteasuk «txoko asko eta politikak» dituela gaineratu du Arozenak.

1. Jokin Sukuntzaren argazkia, digitalaren arloan bigarren saria. 2. Jon Beobideren argazkia, digitalean hirugarren saria. 3. Peru Ortiz de Zarateren argazkia, analogikoan bigarren saria. 4. Ainhoa Arozenaren argazkia, analogikoan lehenengo saria. 5. Mirari Errondosororen argazkia, digitalean lehenengo saria. 6. Ainhoa Arozenaren argazkia, analogikoan hirugarren saria. HITZA





Leidor antzokian Lorezaina obraren inguruko erakusketa ikusgai da. NEREA URBIZU



Jaialdian ikusi zen lehen emanaldia, Andaluziako Angeles de Trapo taldearena izan zen. NEREA URBIZU

Kultura » Atzo inauguratu zuten 26. Nazioarteko Txotxongilo jaialdia; ikusgai dago Aranburu jauregiako erakusketa.

Errusiara begira dagoen leihoa ireki dute bertako txotxongiloak ikusteko

ERREDAKZIOA

Atzo eguerdian hasi zen 26. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia. Leidor antzokiko erakusketarekin inauguratu zuten Titirijai 08. Bertan, jaialdian estreinatuko den *Lorezaina* antzezlanaren eszenografia sortzeko jarraitu den prozesua azaltzen da argazki eta testuen bitartez. Ekitaldian bildu ziren antzerki taldeko arduradunak, Titirijaiakoak, Tolosako Ekinbide Etxekoak, eta Udalekoak. Bildumaren azalpena emanaldia hasteko momentura arte ailegatzen da, oihala igo eta fokuak piztu arte. Lorategi irribarretsuari buruzko poeman zirrarak eta gabeziak daude.

Baina Leidorrekoa ez zen izan estreinatuko erakusketa bakarra. Izan ere, iluntzean, Aranburu Jau-

regian ikusgai dena inauguratu zuten. Aurtengo Jaialdiak Errusiako txotxongiloei egin nahi die omalaldia. Hiru konpainia handitako panpinak ikusi ahal dira. Hauek Errusiako txotxongiloen tradizioan dauden inguru, garai eta mota ezberdinetakoak biltzen dituzte.

Ekitaldiarri hasiera emateko, Joakin Bildarratz alkateak eta Ana Arretxe Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakariak hitz batzuk esan zituzten, ongietorria emanaz Aranburura bertaratu ziren beste herrialdeetako ordezkariak. Besteak beste, Thailandiako enbaxadorea, Errusiakoaren laguntzailea... Ondoren, zinta moztu eta erakusketa ikustera sartu ziren. Bertan aurreratu zuten ere, datorren urtean Quebecera irekiko dutela leihoa.

» EGITARAUA

Azaroak 30, gaur

■ **Leidor.** Microcosmos, Herrialde Katalanetako antzerki taldea Tolosan izango da *Baobab* izeneko lanburkezten. Saioa 17:30ean izango da.

■ **Kasinoa.** Errusiatik dator Ekaterinburgoko txotxongilo taldea, *¿Quien va a despertar el sol?* (Nork esnaraziko du eguzkia?) lana aurkeztera etorriko da. 17:00etan izango da emanaldia.

■ **Zerkausia.** Sri Lancako Tradicional Puppet Art Museumek *Traditional Puppet dances* (Txotxongiloen dantza tradizionalak) taularatu du. Ekitaldia 17:30ean hasiko da.

■ **Kultur Etxea.** Argentinatik dator Asomados y escondidos taldea,

Huevito de ida y vuelta (Joan eta etorrirako arrautzatxoa) lana aurkezteko. Emanaldia 12:30ean hasiko da.

■ **Udal Musika Eskola.** Errusiako, San Petesburgoko txotxongilo taldeak *El patito feo* (Ahatetxo itsusia) obra antzeztuko du. 18:00etan hasiko da emanaldia.

Abenduak 1, bihar

■ **Leidor.** Errusiako Obratsov txotxongilo taldearen eskutik *Lo mejor de Obratsov* (Obratsov-en onena) ikusi ahal izango da, 12:00etan, eta 15:00etan.

■ **Kasinoa.** Errusiatik dator Ekaterinburgoko txotxongilo taldea, *¿Quien va a despertar el sol?* (Nork esnaraziko du eguzkia?) lana aur-

keztera etorriko da. 11:00etan eta 15:00etan izango dira emanaldiak.

■ **Kultur Etxea.** Argentinatik dator El Chonchon taldea, *Romeo y Julieta* (Romeo eta Julieta) antzez-lana aurkeztera. 17:30ean hasiko da.

■ **Udal Musika Eskola.** Alemaniako The Fith Weheel taldeak, *Cabaret sobre hilos* (Kabareta, harien gainean) lana aurkeztuko du. Hiru emanaldi izango dira: 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan.

■ **Helduentzako saioak.** Kasino elkartean, 20:30ean eta 22:30ean izango dira saioak. Bertan, Gaztela Leongo La picara locuela taldeak *Juego de polichinelas* (Politxinelen jokua) lana aurkeztuko du.

Galtzaundi Euskara Taldeak eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak 1936ko Gerrako Oroitzapenak liburuaren inguruan antolatutako ekitaldi hauetara gonbidatzen zaituzte.

AZAROAK 28, OSTIRALA

Garraxi Ixila antzez-lana (Lasarteko Landaberri antzerki eskola). Xabier Lasaren Oroimenean *Lokartutako Ahotsa* liburuaren oinarritutako obra.
Ordua: 22:00
Lekua: Leidor Zinema

ABENDUAK 1, ASTELEHENA

1936ko Gerrako Oroitzapenak Tolosaldea eta Leitzaldean liburuaren aurkezpena, Mikel Errazkin Agirrezabala eta Joxemi Saizar Arostegiren eskutik. Ondoren lunch-a guztientzat.
Ordua: 20:00
Lekua: Tolosako Zerkausia

ABENDUAK 2, ASTEARTEA

Gerra Zibila Tolosaldean hitzaldia, Aranzadi Zientzia Elkarte Mikel Errazkin Agirrezabala eta Jantxo Agirre Mauleonen eskutik.
Ordua: 20:00
Lekua: Tolosako Udaleko Pleno Aretoa

1936KO GERRAKO OROITZAPENAK TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

ARANZADI

galtzaundi

hitza

Oharra: Ekitaldi guzti hauetan 1936ko Gerrako Oroitzapenak liburu eskuratzeko aukera izango da.



Udaberri dantza taldeko dantzari txikiak emanaldia eskaini zuten Triangulo plazan. NEREA URBIZU

Euskal giroa zabaldu dute Euskararen Egunaren atarian

Tolosa » Galtzaundi Euskara taldearen ekimena izan zen atzokoa; datozen egunotan ere izango da zer ospatua.

tan. Zer esanik ez, giro ezin hobea piztu zela bertan.

Galtzaundi eta Ereiteren eskutik, datozen egunotakoak Abenduaren 3an bertan, asteazkenean, Joxerra Gartziaak hitzaldia eskainiko du *Zer arraio, kristo, de-*

montre... egin behar dugu euskararekin izenburupean. Ekitaldia 18:00etan hasiko da.

Honetaz gain, hilaren 13an, Euskarara Batzordeak antolatuta, Prefosta taldeak kantaldia eskainiko du.

Ereite elkarte kulturantzak ere

«euskararen beharraz sentsibilizatu» nahi du eta horregatik hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunotarako.

Esate baterako, asteazkenean bertan, Idoia Santxez ipuin kontalaria ariko da 18:00etan Haur Liburutegian. Ostiralean, berriz, hitzaldia eta afaria antolatu dituzte. Lehena Haur Liburutegian izango da, 18:30ean, eta afaria, berriz, Uzturre sagardotegian izango da, 21:00etatik aurrera. Txartelak salgai jarri dituzte Triangulon, Iratxon eta Allirin.

Altzon ere euskarari omenalditxo

Altzon ere Euskararen Eguna gogoratu nahi izan dute eta horretarako gaur bertan ekitaldi xume bat antolatu dute hau gogoan izanik. *Baloia* filma ikusi ahal izango da udaletxeko gelan.

Haur eta nerabeentzat aproposa da abentura film hau. Irudimena eta adiskidetasuna, besteak beste, jorratzen ditu film ingeles honek. Gauza harrigarriak egingo ditu baloia. Zer egiten duen ikusteke 17:00etan udaletxean azaltea besterik ez da. Honenbestez, herritar guztiak gonbidatuta daude etzi arratsaldeko ekitaldian parte hartzera.

tsua euskara? galderak erantzuteko saiatuko da. Ondoren, galderak egiteko aukera izango da. Hitzaldi-eztabaida 18:30ean hasiko da, eta Errota Haur Liburutegian izango da.

■ **Afaria.** Uzturre sagardotegian afaria izango da 21:00etan. Txartelak Iratxo tabernan edo Triangulo eta Alliri kafetegietan eros daitezke.

Alzoko Azaroak 30, igandea

■ **Zinema.** *Baloia* filma ikusi ahal izango da udaletxeko gelan, 17:00etan.

» EGITARAUA

Tolosa Abenduak 3, asteazkena

■ **Ipuin kontalaria.** Idoia Santxez izango da Errota Haur Liburutegian. Emanaldia 18:00etan hasiko da, eta dohainik izango da sarrera.

■ **Hitzaldia.** Joxerra Gartziaeren 'Zer arraio, kristo, demontre... egin behar dugu euskararekin', 18:00etan.

Abenduak 5, ostirala

■ **Hitzaldi-eztabaida.** *Dilema linguistikoa eta zentzuzko larritasunak* izenburupean, mintzatuko da Xabier Aierdi, Ikuspegiko koordinatzailea. Kike Amonarriek berri, *Zergatik eta zertarako emigratu euskarara? Zergatik da garrantzi-*

ERREDAKZIOA

Euskarakegiten omen ditu euskaldunak euskaldun. Hala zioen abesti ezagun batek. Euskarak ere badu bere egun berezia egutegian, abenduaren 3a da hori. Baina euskaldunen hizkuntzaren egunaren atarian euskal giroa zabaldu nahi izan zuten atzokoa Tolosako erdigunean, Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta.

Hala, 10:00etatik 14:00etara taloak egiten aritu ziren eta hauek dastatzeko aukera izan zen, sagardoaz ondo bustiz. Hotzari aurre egiteko modu egokia izan zen, du-darik gabe.

Tartean, berriz, Udaberri Dantza Taldearen emanaldia eta trikitilariena izan zen. Ordu bat beranduago, Uxue Fernandez eta Adin Rezola aritu ziren bertan bertso-

Mikel Olaetxea pilotaria, Bigarren Mailako Lau t'erdiko finalera

Lizartza » Bellosoren kontra jokaturako partidaren 22-11 irabazi zuen herenegun; Mendizabal izango du aurkari.

ERREDAKZIOA

Mikel Olaetxea lizartzarrik Mendizabal izango du aurrez aurre BBK Promozioako Lau t'erdiko Txapelketako finalean. Txartela herenegun lortu zuen, Legazpin, Bellosoren kontra 22-11ko emaitzarekin irabazi ostean.

Hasieran urduritasunak jota jokatu zuen Lizartzako pilotariak baina apurka-apurka hobeto jarri zen kantuan eta bigarren zatian zazpi sake tartean izanda eta bere jokorenean eraginez, erraz eskuratu zuen garaipena eta finalerako txartela.

Mikel Bellosok gainera lau t'erditik hiru pasa egin zituen eta ez zen ikusi ahal izan betiko Bellosa.

Finala Urretxun izango da abenduaren 13an, larunbatarekin.

Guztira 171 pilotakada eman zituzten.

Tolosako Orfeoien Eguberrietarako kontzerturako sarrerak salgai

ERREDAKZIOA

Tolosako Orfeoia Eguberrietarako Kontzertua eskainiko du abenduaren 23an, asteartearrekin, 20:30ean, Tolosako Leidor Antzokian. Ignacio Ruiz de Alegriaren musika zuzendaritzapean jardungo dute, Iruñeko Concerto orkestrarekin batera. Bertan parte hartuko dute, era berean, Amaya Arberas eta Marife Nogales solistek; hurrenez hurren, sopranoa eta kontraltua. J.S. Bach-en *Oratorio*aren zati batzuk eta Eguberrietako herri kantak interpretatuko dituzte.

Sarrerak eskuratu daitezke Tolosako Leidor antzokiko leihatilan eta interneten, kutxaren webgunean edo *generaltickets.com* delakoa. Sarreraren prezioa 10 eurokoa da.

Urteroko ekitaldi honen abantailak bat da doan dela bazkide partikularrentzat eta enpresentzat, Tolosako Orfeoientzat ematen duten diru laguntzarengatik. Hain zuzen ere, sarrera bana daukate jasotzeko Leidoriko leihatilan, Tolosako Orfeoitik bidaliden eskutiza entregatuz.



Talogleak atsedetik gabe aritu ziren lanean goiz guztian zehar. N. URBIZU

**OKINDEGI/KAFETEGIEN SEKTOREAN
LIDERRA DEN ENPRESAK
NEGOZIO BERRITZAILE ETA
KONTRASTATUAREKIN
LEITZAKO HEDAPENERAKO
BEREZKO NEGOZIOA KUDEATU NAHI
DUTEN PERTSONEKIN
HARREMANETAN JARRI NAHI DU
ERRENTAGARRITASUNA ZIURTATURIK
Harremanetarako telefona:
607219256 / 607 575018**



Eskulanak, baserriko produktuak... Denetik pixka bat ikusi zitekeen atzoko azokan. Irudian, postuetaz arduratu ziren herritar batzuk. N.U.

Belauntzan atzo azoka egin zuten, bertako pilotalekuan eta baserrietako herriko produktuez gain, eskulanak, XX. mende hasierako traste bitxiak eta gozoak izan ziren ere.

Baserritik ateratako perlak

NEREA URBIZU

Baserriko produktuez gain, produktu bitxiak ere ikusi ahal izan ziren atzo Belauntzan. Udalak antolatutako azoka izan zen eta espero zen moduan, baratsetako produktu goxoak ez ziren faltatu. Hala ere, produktu bitxiaren artean, adibidez, erloju zaharrak eta aspaldiko trasteak ere ikusi ahal izan ziren, Estanixen eskutik. Argazki zaharrrak, aspaldiko bozina bat, kasko bat, haurrentzako kotxe zahar bat (150 urtetik gora ditu)...

Horretaz gain, gozo postu bat ere jarri zuten (irasagarra, bizkotxo...) belauntzarrek eta kafea hartzeko aukera ere izan zen bertan. Atzoko haizea petral eta hotzarekin eskertzekoa zen. Izaskundik

egur-tailatzaileak ere hurbildu ziren eta baserriko tresneria eta gauza bitxiak ikusi ahal izan ziren.

Hurrak, intxaurrak, gaztainak, arrautzak, baratzeko produktuak, kalabaza erraldoiak, marmeladak, sagardoa dastatzeko... Denetik pixka bat probatzeko gogoa ematen zuen, frontoian behin sartuta. Eskulanak ere bazeuden saltzeko nahiz ikusteko.

Guztira zazpi postu prestatu zituzten. Arratsaldeko lehen orduan atontzen hasi ziren postuak eta jendea 16:30aldera hurbildu zen.

Bukatze, kantu afaria

Ondoren, herri afaria izan zuten eta *Piano bat bertso* saioa izan zuten, kantatzeko aukera izan zutelarik bertaratutako zirenek.



Bitxiak ere baziren: irudian, Juan Antoniok eramandako erloju zaharrek (eskuinean) eta Estanix, XX. mendeko traste bitxiak. N.U.

Gardua, neguko lehen barazkia iritsi da Tolosako larunbateko azokara

PABLO ALBERDI

Atzoko eguzkiak asko lagundu zuten Tolosako azoka ospatzeko garaian. Jende ugari atera zen kalera eguraldi ona zela eta, eta goiz osoan zehar, oso giro ona ikusi ahal izan genuen azokako mahaietan.

Eskaintza aldetik sagarra eta fruta zerrenda aipatu beharko genuke lehenengoz. Oso eskaintza ugaria dago aurten, eta guztira, ikusitako produktu gehiena, oso kalitate onekoa izaten ari da. Sagarrekin, mizpiradiak, kiwiak, gaztainak, hurrak eta intxaurrak saltzen ari dira.

Barazki zerrenda ere oso zabala da egun hauetan. Aza, azalore, brokoli, romanesku, azelga, espinaka, eskarola edota letxu asko ikusten ari gara. Gardua ere azaldu da neguko barazkia dela eta, eta datozen asteetan piskanaka berrikuntzak ikusi ahal izango ditugu.

Perretxiko zerrenda joan den astekoa izan zen; onddo gehienak kanpokoak, eta hauekin, nikaloak, ziza horiak eta mendiko angulak.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
Landareak		
Azalea	8,50	-
Xarbota	4,00	6,00
Biola	3,00	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Gamuza	15,00	-
Onddo	20,00	30,00

Barazkiak (kiloa)

Gardua	3,00	-
Azenarioa	1,20	6,00

Barazkiak (unitatea)

Kalabazina	0,72	-
Azalorea	1,00	-

Besteak

Ogi biologikoa	3,20	-
Irasagarra	3,00	6,00

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Fruta		
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00

Barazkiak

Kalabaza	1,60	3,04
Tipula	1,75	2,00
Letxua	1,00	-

Iragarki laburrak

SALGAI

■ Txakurra. Arratoi-zakur arrazako bost txakurkume. 615 725 670.



Zintzarria nork lehenengo jo, txapelketan

ASTEASU • Mendi Astearen baitan Asteasun, atzo Eskalada Txapelketa izan zen eta bertan adin desberdineko 27 hurrek hartu zuten parte. Hiru mailatan zeuden banatuta: alde batetik, lau urte bitartekoak, bestetik, lautik 11 urte bitartekora eta bukatzeko 11 urtetik gorakoak. Metro batzuk gora egin behar izan zituzten... Behin gora iritsita, zintzarria jo egin behar zuen eskalatzaileak. Txapelketa honetan denbora hartzen zuten kontuan: ahalik eta azkarren igotzea zen kontua beraz. Gaur, Mendi Astearekin jarraituz, 09:00etan mendi martxa hasiko dute. ESTI EZEIZA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L. ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Alegia.** Mendi irteera antolatu dute, Zaldibitik Orendainera. 08:30ean bilduko dira Tontokalen. Udazkenean Kulturaren baitangoa da.

Zinema

■ **Altzo.** *Baloia* filma izango da ikusgai Altzoko udaletxean, Euskararen Eguna kontuan izanik. Filma egokia da haur eta nerabeentzat: irudimena eta adiskidetasuna jorratzen ditu besteak beste. 17:00etan da.

Deialdiak

■ **Elduain.** Ana Belen Egues elduaindar euskal presoaren urtebetetzea dela eta, argazkia atera behar dute 12:30ean bilduko dira herriko plazan argazkia ateratzeko.

■ **Tolosa.** Txuletaren Festa abenduaren 5etik 8ra izango da Zerkausian. Afariak 5etik 7ra eta bazkariak 6an, 7an eta 8an. Erreserbak (40 euro) 943 697413an edo tour@tolosaldea.neten.

Erakusketak

■ **Anoeta.** Egutegirako argazki lehiaketako lanen erakusketa Abraham Olano kirroldegian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112

Bihar

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Larraulen Kultur Astearren lehen asteburuari ekin diote ekitaldi askorekin; besteak beste, bertso bazkaria, ipuin kontalari eta triki poteoa egin zituzten; gaurkoan ere ez dute aspertzeko aitzakiarik.

Zahar eta gazte, bertsoetan aise

ERREDAKZIOA

Herri guztietan berdintsua, baina bakoitzean desberdina. Poliki-poliki eskualdeko herri bakoitza bere Kultur Astea ospatzen ari da. Oraingoan Larraulen txanda izan da. Herenegun ekin zioten eta atzokoan ere izan zuten zer gozatua, goiz nahiz arratsalde. Eguerdian, irailean eginezuten eskolaren inaugurazioaren bidea ikusi zuten eta ondoren bazkaria egin zuten, bertsolariak alaituta.


Gaur ere ekitaldi ugari

Atzo triki poteoa izan zen azken ekitaldia; gaur, berriz, edandakoak erreko dituzte ibilaldia egingo baitute herriko baserrietan barrena. Ondoren, azoka interesgarria izango da, herriko plazan. Pilotarentzat ere tartea izango da, 16:00etatik aurrera. Amaitzeko, talo eta gaztain-jatea egingo dute Katillu-Txulo elkartean.



Joxe Arregi eta Amets Arzallus bertsolariak bazkaria alaitu zuten euren bertsoekin. ESTI EZEIZA

A Agurrak



Urte askoan!

Zorionak Ekain.

Bihar 8 urte. Muxu handi bat familiaren partetik.



Urte askoan!

Aratz (Amezketeta). Zorionak etxekoan partetik, bereziki osaba Josebak eta Garazik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesede, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera, Mila esker,

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa **h**

Titirijai 2008ren baitan,

honako saio hauetarako **sarrera pare bana** zozketan, deitu eta eskuratu:

Abenduak 6 larunbata • 17:30ean Tolosako Udala Musika Eskolan: **EUGENIO NAVARRO**

Abenduak 6 larunbata • 19:00tan Tolosako Leidorren: **TEATRO DE LA LUNA**

Abenduak 7 igandea • 17:30ean Tolosako Udala Musika Eskolan: **LA PICARA LOCUELA**

Abenduak 7 igandea • 19:00tan Tolosako Leidorren: **BUHO MARAVILLAS**

Abenduak 8 astelehena • 17:30ean Tolosako Udala Musika Eskolan: **TITERES DE SAN PETERSBURGO**

Abenduak 8 astelehena • 19:00tan Tolosako Leidorren: **COMPANIA DEL PRINCEP TOTILAU**

Deitzen duzenok, **17:30erako** edo **19:00tarako** saioetako zozketetan sartu nahi duzen esan beharko duzue. Ezingo da saio zehatz baterako zozketan sartu.

HITZaren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: **943 65 56 95**

